

# SARRERA

---

Agur bero bat

“Ez dok amairu” esan zion deabruak artzaiari, hala dio, behintzat kondairak. Ez dakigu beste inon hamairurik baden, Lezo aldizkariak, behintzat, badu berea, aurrekoak bezala hau ere potolo-potoloa, kontu zahar eta berriz betea (zer berri?, zaharra berri!).

Izen bereziak dituzu ale honetan protagonista; izen berezi asko, Tomas Madariaga, Joxemiel Barandiaran, Kaxkarri, Aitor del Teso, eta beste asko, denak batera eskuz-esku hartuta kalejiran dantzan ale honen barruan, sar zaitetz zu ere katean eta bizi bihurtu dadila gure bizi grina, gu bizi bagara Lezo biziko baita.

On egin!

\*

\*

\*

Un saludo lectora-or

“Ez dok amairu” (“el número trece no existe”) fue lo que le dijo el demonio al pastor según cuenta la leyenda. No sabemos si el número trece existe en alguna otra parte pero la revista Lezo ya tiene el suyo. Al igual que en números anteriores este también viene cargado de noticias e historias que, estamos seguros, os atraerán.

Seguramente son los nombres propios los protagonistas de este número: Tomás Madariaga, Joxemiel Barandiaran, Kaxkarri, Aitor del Teso y otros muchos. Los tienes a todos dentro de este ejemplar, cogidos de la mano en una kalejira alegre a través de los distintos artículos y escritos recopilados. Entra tu también en el corro de la kalejira y que se haga realidad nuestro deseo de vivir ya que si todos abogamos por ello seguro que Lezo seguirá existiendo como pueblo con personalidad propia tal y como lo ha hecho a lo largo de los siglos.

Que os provehe!